

IRAGARKIA

189. ALDIZKARIA - 2021eko abuztuaren 12a - BEREZIA

1. NAFARROAKO FORU KOMUNITATEA

1.1. XEDAPEN OROKORRAK

1.1.3. Foru Aginduak

29/2021 FORU AGINDUA, abuztuaren 10ekoa, Osasuneko kontseilariak emana, zeinaren bidez luzatzen baita Osasuneko kontseilariaren ekainaren 29ko 22/2021 Foru Aginduaren lehen ataleko 40. puntuaren indarraldia. Foru agindu horren bidez, berariazko prebentzio neurri apartekoak hartu ziren Nafarroako Foru Komunitaterako, COVID-19ak eragindako egoera epidemiologikoak izandako bilakaeraren ondorioz.

Osasuneko kontseilariaren ekainaren 29ko 22/2021 Foru Aginduaren bidez, berariazko prebentzio neurri apartekoak hartu ziren Nafarroako Foru Komunitaterako, COVID-19ak eragindako egoera epidemiologikoak izandako bilakaeraren ondorioz. Foru agindu hori Osasuneko kontseilariaren uztailaren 19ko 24/2021 Foru Aginduaren bidez aldatu zen. Foru agindu horretan, mantendu egin zen taberna bereziaren, ikuskizunetarako kafetegiaren, diskotekaren eta dantzalekuaren lizentzia duten establezimenduak irekita egoteko ordu muga, 01:00ean itxi behar baitute. Horrez gain, mugatu –eta ez galarazi– egin zen gaueko zirkulazioa, ordu horretatik goizeko 06:00ak arte, jarduketak koordinatzeko Osasun Ministerioaren ekainaren 2ko dokumentuaren arabera arrisku oso handian zeuden udalerrietan (hau da, 14 eguneko intzidentzia-tasa 250 kasutik gorakoa bazen 100.000 biztanleko, eta 125 kasutik gorakoa 7 egunekoa). Orobat, jende pilaketak saihesteko neurri berriak ezarri ziren, batez ere prebentzio neurriak lasaitzen diren ekitaldietan aplikatzekoak, hala nola kalejiretan (Nafarroako udalerrri batzuetan arrisku egoerak eta kutsatzeak eragin baitituzte), herri bazkarietan eta aire zabaleko zezen-ikuskizunetan (zezen-plazetatik kanpo egiten direnetan). Azkenik, neurri sinergiko horien multzoa ixteko, eremu publikoetan bildu daitekeen pertsona kopurua ere mugatu zen: 10 lagun gehienez. Salbuetsita gelditu ziren, ohi bezala, hamar kideetik gorako bizikidetzak-unitateak eta baimena duten taldeak, orain aldatzen den foru aginduan jasotako mugekin bat etorritik.

Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salaren uztailaren 20ko Autoaren bidez, 24/2021 Foru Aginduan hartu ziren neurriak baimendu ziren, 8. puntukoak izan ezik (“Pertsonak gauez zirkulatzeko duten askatasuna mugatzea Nafarroako Foru Komunitatean”). Izan ere, ez ziren identifikatu neurri horrek ukituko zituen udalerrriak, eta horrek

galarazi zuen Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak baimentzea.

Gero, Osasuneko kontseilariaren uztailaren 22ko 25/2021 Foru Aginduaren bidez, berriz aldatu zen Osasuneko kontseilariaren 22/2021 Foru Agindua, eta pertsonen gaueko zirkulazioa mugatu egin zen egun jakin batzuetarako. Beharrezkotzat jo zen pertsonen gaueko zirkulazioa mugatzea (baina ez galaraztea) asteburuetan, jaiegunetan eta herriko jaiak eginen ziratekeen egunetan, udalerrri jakin batzuetan, hots, 14 eta 7 egunean neurtutako intzidentzia metatuaren balioak muturreko arrisku egoeran zituzten udalerrietan (arrisku oso handia, jarduketak koordinatzeko Osasun Ministerioaren dokumentuan).

Foru agindu hori osorik baimendu zuen Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak, uztailaren 23ko 108/2021 Autoaren bidez.

Osasuneko kontseilariaren uztailaren 27ko 26/2021 Foru Aginduaren bidez, luzatu egin zen ekainaren 29ko 22/2021 Foru Agindua, epaileek baimendutako aldaketa guztiak barne, eta hein batean aldatu ziren bertan bildutako neurri batzuk. Bestalde, foru aginduaren 40. puntua aldatu zen, gaueko zirkulazioa murrizteko neurriak aplikatzeko irizpideak betetzen zituzten udalerrien zerrenda gehituz. Ezarri ere egin zen udalerrien zerrenda hori astero eguneratu eta argitaratuko zela, bai Nafarroako Aldizkari Ofizialean, bai Gobernu Irekiaren Atarian, eta epaileek astero berretsi beharko zutela; izan ere, intzidentzia metatuak denbora laburrean aldatzen dira datu epidemiologikoen arabera. 2021eko abuztuaren 5era arte indarrean egotea erabaki zen. Foru agindu hori osorik baimendu zuen Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak, uztailaren 29ko 111/2021 Autoaren bidez.

Azkenik, abuztuaren 3ko 27/2021 Foru Aginduaren bidez, luzatu egin zen, abuztuaren 12ra arte (egun hori barne) ekainaren 29ko 22/2021 Foru Aginduaren lehen ataleko 40. puntuaren indarraldia. Horrez gain, aldatu ere egin zen gaueko zirkulazioa mugatzeko neurria (egun eta ordu jakin batzuetan) aplikatzekoa zaien udalerrien zerrenda. Foru agindu hori judizialki baimendu zuen Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak abuztuaren 4ko 113/2021 Autoaren bidez.

Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuaren txostenaren arabera, 7 egunean metatutako intzidentzia-tasa behera doa poliki-poliki. Aste honetan, 273,12 kasu berrikoa da 100.000 biztanleko, eta horrek esan nahi du oraindik ere arrisku oso handian edo muturrekoan gaudela (125 kasu baino gehiago 100.000 biztanleko). Ratioa 2,4koa da. 12 urte bitartekoen eta 12-29 urtekoen intzidentzia-tasak Estatuko altuenen artean daude oraindik ere. Intentsitate ertaineko zirkulazio epidemikoko egoera dugu, eta intzidentziek, poliki-poliki, beherantz jarraitzen badute ere, oraindik ere 250 kasu izaten ari dira batez beste egunean azken astean.

Positibotasuna beherantz doa poliki, eta %12,6koa da orain. Antigenoen test azkarretan, ordea, %14,4koa da, eta %11,6koa PCR probetan; hau da, uhin honen aurretik geneukan positibotasunaren (%5ekoa) oso gaineratik gaude.

Egia bada ere oraingo uhin honetan ospitaleratzen diren kasuen ehuneko txikiagoa dela, honako arau hau berdin betetzen ari da: intzidentzia-tasak gora egiten duenetik 2-3 astera, gora

egiten du ospitaleetan eta ZIUetan sartzen direnen kopuruak, eta, gero, baita heriotzen kopuruak ere. Gaixo akutuek eta ZIUetakoek okupaturako ohe kopurua egonkor mantentzen da, igoera bat izan ondoren.

Txertaketa aurrera doa, eta biztanleria osoaren %70,2k dosi bat dauka jadanik, eta %62,9k pauta osoa. Ahalegin handia egin da 60-69 urte bitarteko txertaketa osatzeko: honezkero %94,6k dosi bat jarrita dauka, eta %92,4k pauta osoa. Adin-tarte horrek arrisku handia du koronabirusak eragindako infekzioa dela eta konplikazioak izateko. Bestalde, txertaketaren estaldura nahiko baxua da oraindik ere 30-39 urtekoen eta 20-29 urtekoen taldeetan (%61,6k eta %30,6k du pauta osoa, hurrenez hurren), nahiz eta kopuru hori handituz joan abuztuan zehar. Gaur egun, 12 eta 15 urte bitarteko taldean hasi da txertoa jartzen.

Gizarte-interakzio handiak eta herritarren joan-etorriek COVID-19aren transmisio maila altuak ekarri dituzte. Intzidentzia-tasa handiagoa da txertoa hartu ez dutenen artean eta pauta osoa ez dutenen artean. Txertaturik dauden pertsonen kasuan, gehienetan, Delta aldaera da kutsatzearen erantzulea. Txertaketa murrizten ari da uhin epidemiko berri honen inpaktua, kasu larrien intzidentziari begiratzen badiogu. Hala ere, ikusita metaturako kasuen kopurua handia dela eta intzidentziak gora egin duela 75 urtetik gorako artean, aurreikusten da ospitaleratze kasuak ugartu egiten direla datozen asteetan.

Oso garrantzitsua da herritarrek prebentzio neurriak sendotzea: tarte fisikoa, maskara behar bezala erabiltzea, eskuen higiena, aireztapen egokia eta kontaktu mugatuak, bai eta txertaketaren eskaintzari erantzutea ere.

Gainera, hartu diren hiru neurri garrantzitsuenei esker (hau da, ostalaritzako jarduera eta bestelako jarduera batzuk murriztea, 01:00ean itxita; gaueko ordutegia 01:00etik 06:00etara mugatzea asteburuetan, jaiegun orokorretan eta udalerrri bakoitzeko jaiegunetan; eta gehienez ere 10 lagun elkartu ahal izatea eremu publikoan), modu sinergikoan eragiten baitute, eta txertaketa osoarekin batera, zeinak erakutsi baitu eraginkortasun eta inpaktu handia dituela kasu larrien prebentzian, birusaren transmisioari modu egokian kontra egitea lortzen da.

Hori horrela, oraindik ere beharrezkotzat jotzen da gaur egungo neurri murriztaile horiei guztiei eustea, barnean sartuta gaueko ordutegiaren muga, 01:00etik 06:00etara, intzidentziak gaur egungo beheranzko joerari jarrai diezaion, bosgarren uhina hasi aurreko oinarritzako egoerara iritsi arte. Neurri horietariko edozein kentzeak, abuztua bezalako hilabete batean, berekin ekar dezake oreka hori eta beheranzko joera haustea, izan ere mugikortasun eta interakzio sozial handiko sasoia dugu hilabete hau, hilabete honetan izaten baitira jaiegun eta oporraldi gehienak. Bestalde, komenigarria da ahalik eta baldintzarik onenetan iristea heldu den ikasturtera.

Egoera epidemiologikoa gertutik behatuz segituko da, ezarritako neurrien ondorioak ikusteko eta neurri berriak hartu behar diren baloratzeko, beharrezkoa izanez gero.

Nafarroako Ospitalegunearen txostenaren arabera, komunitatean hartutako neurri berriei esker eta txertaketa-planean egindako aurrerapenari esker, kasu berrien goranzko joera geldiaraztea lortu da, bai eta jende gehiago ospitaleratzea eta ZIUetan sartzea. Alabaina, oraindik ez da geldiarazi heriotzen kopuruan izandako igoera, bi arrazoiengatik: batetik, kutsatu berrien, ospitaleratutakoaren eta hildakoen bilakaeraren eragina, eta bestetik, kutsatutakoaren adinaren

eragina.

Bosgarren olatuaren jaitsiera bere igoera baino motelagoa izaten ari da, eta intzidentzia- eta positibotasun-tasak altu mantentzen dira; larrialdietako, ospitaleetako eta kritikoetako jarduera maila, berriz, beherantz doa, baina altua da oraindik ere. ZIUetako okupazioa aste batean edo bitan mantenduko da, pazienteek unitate horietan izaten duten batez besteko egonaldia aintzat hartuta. Nabarmentzekoa da ospitaleratze kasuen jaitsiera ez dela nabari 65 urtetik gorakoetan: azken astean izandako ospitaleratzeen %48,4 izan da. Adin-talde horretan handiagoa da gaixotasunagatik ospitaleratze eta hiltzeko dagoen arriskua. Kezka berezia sortzen dute infekzio berriek zentro soziosanitarioetan.

Ezin da alde batera utzi ezen bilakaerak eta aurreikuspenek hobera egin badute, araudi berriari eta hura betearazteari esker izan dela. Murrizketak eteten badira, horiek ezarri aurreko asteetako bilakaera negatiboa berehala berreskura daiteke.

Hurrengo asteak mugikortasun handiko eta arrisku handiko aldiak dira, jaiegunei eta bestelako ospakizunei lotuak.

Birusak mundu mailan duen zirkulazio maila ikusita, kontuan izan behar dugu aldaera bat ager daitekeela eragina izan dezakeena txertoen eta alde aurreko infekzioaren babesaren gainean.

Testuinguru horretan, kasuen jaitsiera nabarmen bat gertatu arte eta osasun sistema jasaten ari den presioa lasaitu arte, beharrezkoa da prebentzio komunitariorako neurriak mantentzea, batez ere arrisku handieneko kolektibo, testuinguru eta inguruneetan. Beharrezkoa da mugak jartzea kutsatzeko ahalmen handiagoa duten birus aldaerak sartu eta hedatu ez daitezen eta ospitaleetan eta ZIUetan jende gehiago sar ez dadin.

Denbora irabazi behar da txertaketa-prozesua biztanleria babesteko moduko atalase batera iritsi dadin, eta, Delta aldaeraren kutsagarritasuna ikusirik, atalase hori igotzea aztertzen ari dira.

Beharrezkoa da ospitaleetako inpaktua mailarik apalenetan mantentzea, COVID-19ari lotua ez dagoen jarduera eta osasungintzako profesionalen atsedenen plangintza ez ukitzeko.

Aurreko guztia ikusirik, beharrezkoa da 2021eko abuztuaren 19ra arte luzatzea (egun hori barne) gaueko zirkulazioa murrizten duen neurria. Neurri hori aplikatuko da ekainaren 29ko 22/2021 Foru Aginduaren (geroago aldatu zenaren) 40. puntuko irizpideak betetzen dituzten udalerrietan. Izan ere, argi geratu da neurri egokia dela, eraginkorra delako. Neurri hori hartu zenetik, beherantz egin dute kutsatzeek eta ospitaleratzeek, eta une honetan, komenigarria da hori sendotzea, arrisku handian jarraitzen baitugu, hala adierazten duenez Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuaren txostenak. Txosten horretan adierazten denaren arabera, oraindik ere beharrezkotzat jotzen da gaueko ordutegiaren muga mantentzea, 01:00etik 06:00etara, ezarritako irizpideak betetzen dituzten udalerrietan, intzidentziak gaur egungo beheranzko joerari jarrai diezaion, bosgarren uhina hasi aurreko oinarritzko egoerara iritsi arte. Neurri horietariko edozein kentzeak, abuztua bezalako hilabete batean, berekin ekar dezake oreka hori eta hasitako beheranzko joera haustea, izan ere mugikortasun eta interakzio sozial handiko sasoia dugu hilabete hau, hilabete honetan izaten baitira jaiegun eta oporraldi gehienak. Bestalde, komenigarria da ahalik eta baldintzarik onenetan iristea heldu den ikasturtera, 12

urtetik beherakoek ez baitute txertotik hartu, eta txertaketaren estaldura ez da behar bezain handia izanen irailean 12 eta 15 urtekoen artean.

Orobat, beharrezkoa da neurri horri eustea, are gehiago bizi dugun une zail honetan, zeinean mugikortasuna eta interakzio soziala handi-handiak baitira. Egiaztatu ahal izan denez, kutsatzeak eta agerraldi superkutsatzaileak eragin ditzakeen interakzio sozialari eusteko neurriak eraginkorra izan da kasu jakin batzuetan gaueko zirkulazioa murriztea, eta horrekin batera ostalaritzako ordutegiak mugatzea eta eremu publikoan elkar daitezkeen taldeak txikiagotzea. Aurretik hartutako neurriak, berriz, ez dira nahikoak izan, aurreko batzuetan azaldu den bezala.

Orain luzatzen den erabakia neurritzkoa da; izan ere, modu selektiboan aplikatzen da, hots, Osasuneko kontseilariaren ekainaren 29ko 22/2021 Foru Aginduaren 40. puntuko baldintzak betetzen dituzten udalerrietan baizik ez da aplikatzen, egun eta ordutegi jakin batzuetan, behin egiaztaturik lehenago hartutako neurriak ez direla aski agerraldiei eusteko, eta zirkulazioa murrizteko neurria eraginkorra izan dela aurreko beste olatu batzuetan. Foru aginduaren eranskinean jasotako udalerrri hauek (besteak beste, Nafarroan biztanle gehien dituztenak: Iruña, Tuter, Barañain, Atarrabia, Zizur Nagusia, Burlata, Lizarra, etab.) arrisku oso handiko intzidentzia metatuak dituzte, eta, gainera, departamentuak emandako datuen arabera, oraindik ez dute behar adinako txertaketa estaldurarik, zeina, orain, Delta aldaerarekin, %80 eta %90 bitartekoa baita.

Neurria indarrean mantentzearekin, gainera, jarduera ekonomikoaren interesak eta pandemiaren kontrola uztartu nahi dira; izan ere, neurri honek jarduera ekonomikoa egunez irekita egotea ahalbidetzen du, gau berandura arte, eta horrela saihesten da gizartean eta ekonomian eragin handiagoa izanen luketen beste neurri murriztaileago batzuk hartzea.

Era berean, Osasuneko kontseilariaren ekainaren 29ko 22/2021 Foru Aginduaren 15.2 puntua ere aldatzen da, halako moduz non puntu horretan ezarritakotik salbuetsita egonen dira baimendutako lehiaketak (foru aginduaren 15.2 puntuan ezarri zen ezen erabilera kolektiboko dutxak edukiaren %50 errespetatuta erabiltzen ahalko direla, eta ezin izanen direla erabili alboko dutxak). Baimendutako lehiaketetan, taldeak kirolari kopuru jakin batekin osatuta daude. Aldaketa gutxi izaten dira talde horietan lehiaketan zehar, eta kirolariek elkarrekin egiten dituzte jarduera guztiak: entrenamenduak, lehiaketak, etab. Jarduera horietan, gainera, elkarreragin pertsonala izaten da askotan, eta horregatik, burbuila-taldetzat har daitezke talde horiek. Horregatik, eta dutxen erabilerari dagokionez, arrazoizkoa dirudi biztanleria orokorrarentzat ezarritako murrizketak ez egotea.

Azkenik, 35.5 puntua ere aldatu da, "bide publikoa" gehituta, bat etorritik atal bereko lehenengo puntuan xedatutakoarekin. Horrela, bateratu egin dira zezen-ikuskizunak egiteko aurreikuspenak, ekitaldia egiteko lekuaren irizpideari dagokionez. Hori guztia, xede honekin: egoera seguruak lortzea, eskatutako baldintza higieniko-sanitarioak bete ditzaketenak epidemia hedatu ez dadin.

Neurri horiek Osasun Publikoaren arloko Neurri Bereziei buruzko apirilaren 14ko 3/1986 Lege Organikoaren 2. eta 3. artikuluetan xedatutakoa dute arau-oinarri, non xedatzen baita ezen osasun publikoa babesteko eta haren galera edo narriadura eragozteko, administrazio

publikoetako osasun arloko agintariek, beren eskumenen esparruan, transmisio arriskuko kasuetan beharrezkotzat jotzen diren neurriak hartu ahal izanzen dituztela, urgentziazko edo premiazko osasun arrazoiek hala eskatzen dutenean.

Bestalde, hala adierazten baitu bere 26.1 artikuluan Osasunari buruzko apirilaren 25eko 14/1986 Lege Orokorrak, osasunerako berehalako arrisku ohiz kanpoko bat baldin badago, edo zentzuz jokatuta susmatzen bada badagoela, osasun arloko agintariek egokitzat jotzen dituzten prebentzio neurriak hartuko dituzte, hala nola produktuak konfiskatu edo immobilizatzea, jarduerak bertan behera uztea, enpresak edo haien instalazioak ixtea, bitarteko materialen eta giza baliabideen interbentzioa, bai eta osasunaren ikuspuntutik justifikatutzat jotzen diren beste guztiak ere.

Azkenik, Osasun Publikoari buruzko urriaren 4ko 33/2011 Lege Orokorrak 54.1 artikuluan ezartzen duenez, eta galarazi gabe Osasun Publikoaren arloko Neurri Bereziei buruzko apirilaren 14ko 3/1986 Lege Organikoan aurreikusitako neurriak, salbuespenez eta aparteko larritasunak edo presak agindutako egoeretan, Estatuko Administrazio Orokorrak, autonomia erkidegoetakoek eta Ceuta eta Melilla hirietakoek beharrezkoak diren neurri guztiak hartzen ahalko dituzte, zeinek bere eskumenen esparruan, legea betetzen dela ziurtatzeko. Horrez gain, 2. artikuluan ezartzen du, zehazki, agintaritzak eskudunak neurri batzuk hartzen ahalko dituela ebazpen arrazoituaren bidez, galarazi gabe Osasunari buruzko apirilaren 25eko 14/1986 Lege Orokorrean aurreikusitakoa; neurri horien artean aipatzen du bitarteko materialen edo giza baliabideen interbentzioa (b apartatua) eta jarduerak bertan behera uztea (d apartatua).

Beraz, bidezkoa da 22/2021 Foru Aginduaren 40. puntuaren indarraldia luzatzea eta, horrenbestez, jendearen zirkulazio askatasuna mugatzea gauez eta foru agindu honen eranskinean agertzen diren udalerrietan, goian adierazi denaren ildotik.

Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 10. artikulua, Justizia Administrazioaren esparruan COVID-19ari aurre egiteko neurri prozesal eta antolaketakoei buruzko irailaren 18ko 3/2020 Legeak aldatutakoak, xedatzen du Justizia Auzitegi Nagusietako Administrazioarekiko Auzien Salak arduratuko direla baimen edo berrespen judiziala emateaz Estatukoak ez diren osasun agintaritzek osasun arloko legeriarekin bat hartzen dituzten neurriei, agintaritzak horiek osasun publikorako urgente eta beharrezkotzat jotzen badituzte neurri horiek, oinarritzko eskubideak mugatzea edo murriztea eragiten dutenean eta, betiere, neurrien hartzailak banaka identifikaturik ez daudenean.

Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legearen 2.2 artikuluari jarraikiz,

AGINTZEN DUT:

Lehena.—Luzatzea 2021eko abuztuaren 19ra arte, egun hori barne, Osasuneko kontseilariaren ekainaren 29ko 22/2021 Foru Aginduaren lehen ataleko 40. puntuaren indarraldia, baldintza berberetan. Foru agindu horren bidez, berariazko prebentzio neurri apartekoak hartu ziren Nafarroako Foru Komunitaterako, COVID-19ak eragindako egoera epidemiologikoak izandako bilakaeraren ondorioz.

Bigarrena.—Aldatzea Osasuneko kontseilariaren ekainaren 29ko 22/2021 Foru Aginduaren

eranskinean agertzen den udalerrien zerrenda, Osasuneko kontseilariaren abuztuaren 3ko 27/2021 Foru Aginduan sartu zena. Udalerrri horiek dira foru agindu honetan ezarritako irizpideak betetzen dituztenak, eta, beraz, gaueko zirkulazioa foru agindu honen 40. puntuari ezarri bezala murrizteko neurria udalerrri horietan aplikatuko da.

Hirugarrena.–Osasuneko kontseilariaren ekainaren 29ko 22/2021 Foru Aginduaren lehen ataleko 15.2. puntua aldatzea; honela idatzita geldituko da:

“15.2. Debekatuta dago saunak, bainu turkiarrak edo antzekoak erabiltzea. Kirol errendimenduko kirolariek espazio horiek erabiltzen ahalko dituzte haien prestakuntza fisikoaren osagarri gisa, aldez aurretik hitzordua eskatuz eta banaka erabiltzeko. Baimenduta dago aldagelak eta dutxak erabiltzea. Erabilera kolektiboko dutxak edukiaren %50 errespetatuta erabiltzen ahalko dira, eta ezin izanen dira erabili alboko dutxak. Neurri hau ez da aplikatuko baimendutako lehiaketetan”.

Laugarrena.–Osasuneko kontseilariaren ekainaren 29ko 22/2021 Foru Aginduaren (geroago Osasuneko kontseilariaren uztailaren 27ko 26/2021 Foru Aginduak aldatu zuenaren) lehen ataleko 35.5 puntua aldatzea; honela idatzita geratuko da:

“35.5: Edonola ere, ez da baimentzen zezen ikuskizun herrikoiak egitea, hala nola basabereak libratzea edo antzekoak, bide publikoan”.

Bosgarrena.–Foru agindu hau Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentuko Aholkularitza Juridikora igortzea, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak foru aginduari baimen judiziala emateko behar den tramitazioa egin dezan; eta igortzea, halaber, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuko kudeatzaileari, Lehendakartzako eta Gobernu Irekiko Zuzendaritza Nagusira, Gobernuak Nafarroan duen Ordezkaritzara, Barne Zuzendaritza Nagusira, Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritza Nagusira, Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Zuzendaritza Nagusira, Enpresa Politikaren, Nazioarteko Proiektzioaren eta Lanaren Zuzendaritza Nagusira, Nafarroako Kirolaren Institutura, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federaziora, Osasun Zuzendaritza Nagusira eta Osasun Departamentuko Idazkaritza Tekniko Nagusira.

Seigarrena.–Foru agindu honek 2021eko abuztuaren 13an hartuko du indarra, 00:00etan.

Iruñean, 2021eko abuztuaren 10ean.–Eskubide Sozioletako kontseilaria, María Carmen Maeztu Villafranca (Osasuneko kontseilariaren ordezkari sinatzen du, Nafarroako Foru Komunitateko Lehendakariaren uztailaren 26ko 40/2021 Foru Dekretuarekin bat).

ERANSKINA: COVID-19AK ERAGINDAKO MUTURREKO ARRISKU-EGOERAN DAUDEN UDALERRIEN ZERRENDA, ABUZTUAREN 10EAN EGUNERATUA

Ver tabla completaVer tabla completa

UDALERRIA	14 EGUNEAN METATUTAKO	7 EGUNEAN METATUTAKO
------------------	------------------------------	-----------------------------

	INTZIDENTZIA	INTZIDENTZIA
Abartzuza	1.672,862	185,873
Altsasu	698,643	416,498
Ameskoabarrena	414,364	138,121
Antzin	890,207	296,735
Andosilla	947,867	401,020
Antsoain	535,401	156,927
Araitz	781,250	781,250
Arakil	750,267	321,543
Arantza	1.675,041	1.005,025
Arroitz	475,737	380,589
Artaxoa	358,208	298,507
Atetz	465,116	465,116
Aiegi	760,777	211,327
Azagra	1.196,981	858,704
Bakaiku	828,729	276,243
Barañain	470,320	188,128
Barillas	467,289	467,289
Baztan	1.813,038	630,063
Berriobeiti	647,739	303,197
Berriozar	623,441	220,602
Betelu	2.185,792	2.185,792
Bidaurreta	1.840,490	613,496
Buñuel	540,784	270,392
Burlata	413,699	162,337

Cárcar	654,817	654,817
Zarrakaztelu	400,801	160,320
Cascante	1.475,155	983,436
Kaseda	1.848,049	308,008
Castejón	480,422	144,126
Cintruénigo	620,017	253,068
Zizur	514,403	180,041
Corella	828,001	238,364
Donamaria	1.616,628	692,840
Doneztebe	1.042,873	695,249
Elgorriaga	454,545	454,545
Lizarra	1.238,233	514,120
Esteribar	1.036,269	444,115
Etxalar	861,008	492,004
Etxauri	769,230	153,846
Ezkaroze	653,594	653,594
Fitero	1.044,256	1.044,256
Funes	573,770	163,934
Garinoain	801,603	200,400
Gesalatz	462,962	462,962
Uharte	605,548	211,237
Igantzi	312,989	156,494
Iguzkitza	923,076	307,692
Irañeta	4.069,767	2.325,581
Irurtzun	940,438	134,348

Iturmendi	1.985,111	1.240,694
Larraun	525,762	420,609
Lekunberri	325,520	130,208
Lerin	1.101,449	695,652
Lezaun	826,446	413,223
Ledea	684,931	684,931
Lodosa	1.017,441	207,641
Martzilla	909,727	384,884
Mélida	545,702	272,851
Mendabia	563,856	140,964
Milagro	995,316	439,110
Miranda Arga	1.311,084	1.191,895
Elo	418,410	209,205
Murchante	433,317	168,512
Murillo el Cuende	902,255	300,751
Nabaskoze	757,575	757,575
Noain (Elortzibar)	468,750	156,250
Olaibar	529,100	529,100
Olazti	4.096,709	1.678,979
Orkoien	419,028	197,190
Iruña	505,819	212,741
Azkoién	729,679	254,539
Gares	598,591	387,323
Zare	751,879	751,879
Saldias	819,672	819,672

San Adrián	1.271,455	826,446
Sartaguda	1.216,730	228,136
Sunbilla	888,888	296,296
Tebas-Muru Artederreta	495,049	330,033
Tutera	885,321	455,071
Uxue	1.098,901	549,450
Ultzama	483,968	362,976
Urzainki	1.190,476	1.190,476
Eguesibar	634,229	293,449
Valtierra	331,674	165,837
Viana	807,792	261,344
Atarrabia	529,204	127,401
Zizur Nagusia	443,131	208,137
Zubieta	990,099	660,066

Iragarkiaren kodea: F2112341